



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2017ko maiatza · 327. alea

TOKIKOM

Ascensio Gurrutxagaren ondarea argitara



AURKIBIDEA

- 4 Bote** prontuan Aitana Cortes
- 6 Begira** Karakate
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 12 Argazki bidez** Herri galdeketa
- 14 Plazan Bazan** Umeendako jolasak
- 18 Erreportajea** Ascensio Gurrutxaga
- 22 Kirola** Soraluze Futbol taldea
- 24 Kultura** Euskal Jaiak
- 25 Bidaiak** Roman Olaizola eta Pedri Lete
- 27 Nondik nora?** Javier Agirregomezkorta
- 28 Sakonean** Sorabox boxeo kluba
- 30 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, hildakoak, esker-ona...

Iritzia

- 3 Neuretik** Imanol Lopez Aldazabal *Plazentziako musika eta musikaria*
- 16 Gutunak** Ainhitze Elizburu
- 16 Gutunak** Umeen danborradako batzordea
- 16 Hausnarketa** Herbizidak
- 17 Zir(r)ika** Don Ascensio
- 17 Puntua** Alberto Iñurrieta *Arazoak eta estresak (II)*



Pil-pilean
herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: aldizkaria@pilpilean.com • 605 706 086

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkartea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Telefonoa

943 75 13 04
Erredakzioa
Egoitz Unamuno 605 706 086
egoitz@pilpilean.eus

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus
Diseinua Goiena,
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi
Zuzentzailea Leire Ginea
Inprimategia Gertu Koop.

Banaketa

Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua: SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Plazentziako musikaren eta musikoen aztarnak



Imanol Lopez

Plazentziako musika tradizioarekin arkeologia lanak egiten hasiz gero, Lamoteren grabatuan topatuko dogu lehenengo aztarna (1756). Grabatuan ageri dira dantzari eta txistulariak, udaletxe aurrean, Labaderogainen, soka-dantza egiten. Grabatua Jose Joaquin Zameza Elexaldekin zeban, Zamezanekua etxean bizi izan zanak (gaur Txergorina esaten jakon lekuan). Ramiro Larrañagak kontatzen dabenez, bere anaia Jose Millan, Plazentzian bizi izandakoa zan haurtzaroan, Kapillako Maisua izatera heldu zan Antequerako Kolegiatan, eta badaukaz hogeiren bat obra, danak ahotsendako egindakua, eta gehienak instrumentuz lagundu beharrekoak. Urte batzuk geroago, ondorengo aipamena jasotzen dau 1793ko udalbatzarraren akta batek: “*memorial presentado por Lucas Antonio de Maiza musico tamboritero*” (J. Basauri).

Plazentziako musika tradizioarekin arkeologia lanak egiten hasiz gero, Lamoteren grabatuan topatuko dogu lehenengo aztarna (1756)

1883an jaio zan Polikarpo Larrañaga Aranguren, apaiza. Berak egin zeban Ezoziko Amaren Ereserkia, baita *Mendiko Eguna* zarzuela eta *Ametz Larria* opera. Zoritxarrez, gerra aurretik egin zittuan bi obra horien dokumentuak ezin izan dira topatu. Aita Donostiak berarengandik jaso zittuan bere kantutegian jasotako bi kanta: *Bi eta iru bider* eta *Or goyan etxia* izena daroien gabon-kantak, Plazentzian

jasotakoak. Horiekin batera, Fermina Tremeñok beste bi hauek ere jaso zittuan: *Iru errege datoz* eta *Peru ekarzazu*.

Dena den, ez da hori izan Plazentzian euskal kantutegiari egin jakon ekarpen bakarra. R.M. Azkuek ere edan zeban Plazentziako iturritik. Bere kantutegian ondorengo kantuak jaso zittuan: *Zeruko Erregiña* Andres Ezenarro *Urzelarengandik*; eta *Jesus yaio zan*, *Nik baditut iru makur* (tatxa) eta *Asko lagunengandik*, Isabel Kerejetarengandik (Andresen ama).

Andres Urzelai da Gerra Zibila baino lehen herrian egiten ziran Aratosteetako konpartsetako kantuen egilea: *Lisiberan*, *Pintoriëna*, *Arraunlariak*, *Sorgiñak*, *Sudango Sultana*, *Zapatariak*, *Aratoste ontako*, eta abar. Guziak, Eustaki Maiztegi *Txiketek* txukun-txukun transkribatu zittuanak.

Hortaz, argi dago Plazentzian beti egon dala musika, eta beti egon dirala musikoak. Herri-kantuak hala gogorarazten dosku: *Elorriox ta Txitia*, *Amable ta Aixia*, *Motxa ta konpañia*, *Plazentziako bandia*.

Aitana Cortes Ramos

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO ARGAZKIA: AITANA CORTES

Aitanak 21 urte ditu eta erizaintzako 3. maila egiten dihardu Bilbon. Apirilean, hamar eguez sahararren kanpamenduetan izan da, Argelian, Bojador Wilayanen (Tinduf). Hamar egun egin ditu bertan; nahikoa, barruan saharrekiko elkartasun hazia ernetzeko. Berriz joateko gogoz etorri da.

Zela sortu zaizu Saharara joateko aukera?

Nire kurtsoan neska saharar bat dago, erizaintza ikasten diharduena eta berak antolatu du proiektua. Hogeita sei pertsona joan gara, gehienak, 21, erizaintzako ikasleak, 5 erizain eta unibertsitateko irakasle bat. Argelian dauden errefuxiatuen kanpamendu batean egon gara, euren etxeetan, baina inguruko beste kanpamentu batzuk ere ezagutu ditugu.

Zertan jardun duzue bertan?

Proiektuaren helburua izan da bertara ahalik eta erizaintzako material gehien eramatea. Horrekin batera, beraien errealitatea eta beharrak bertatik bertara ezagutu nahi izan ditugu, datozen urteetan bidaliko dugun laguntza euren beharretara hobeto egokitu dadin.

Zelakoa izan da han aurkitu duzun egoera?

Arreta eman zidan lehenengo gauza jolasean ziharduten umeak izan ziren. Berrogei gradu baino gehiagorekin, oinutsik, jolasean aritzen ziren; edozein ontzirekin, errubera batekin edo aurkitzen zuten edozerekin. Zoriontsuak ziruditen, eta ez dut ahaztuko goxoki bat ematen genienean jartzen zuten poztasun aurpegia. Polita da, baina gogorra ere bai.

Gure asmoa zen erizaintzako nozio batzuk erakustea, baina ikusi dugu oinarrizko jakintza falta dutela. Osasungintzako azken aurrerapenak ez dituzte ezagutzen, eta gehiago sinesten dute euren medikuntza tradizionallean. Beraz, zegoenera moldatu eta diabetes eta menopausiari buruzko hitzaldiak eskaini genizkien, erreanimazio kardiopulmonarra egiten erakutsi eta abar.

Joan aurretik bazenuen sahararren historiaren berri?

Joan aurretik ez nuen ondo ezagutzen zein zen sahararren egoera, baina han Saharako atxilotuen familien elkarte bat bisitatu genuen, eta eurek eman zituzten egoeraren berri. Espaniak sahararrak abandonatu zituenean, Marokorekin hasi ziren ekintza armatuen ondorioz, saharar askok alde egin behar izan zuten mendebaldeko Saharatik, eta errefuxiatu familiak Argelia hegoaldera joan ziren, Tinduferra. Aldiz, beste

batzuk oraindik Marruekoek kontrolatzen duen Saharako zatian bizi dira; beste batzuk, Frente Polisarioak kontrolatzen duen zatian. Azken horiek Marruekoek kontrolatzen duen lurraldearen askatasunaren bila dihardute.

Zerk hunkitu zaitu gehien?

Gerran zauritutako pertsonen ospitalean ikusi genuenak. Ospitale hori erresidentzia baten modukoa da, bertan, gerraren ondorioak jasan dituzten pertsonak eta haien familiak bizi dira, euren etxeetan bizitzeko baliabiderik ez dutelako. Ospitalea nahiko egoera kaxkarrean dago. Askok hunkitu ninduen bertan ezagutu nuen pertsona baten bizipenak: gizon batek 34 urte egin zituen ohetik mugitu gabe, mina batek tetraplegiko laga ostean. Berarekin egon ginen unea oso berezia izan zen, ez baitzuen irribarrea galtzen, eta asko eskertu zigun bisita hori egin izana eta berarekin gogoratzea.

Zer diote sahararrek euren egoeraren inguruan?

Politikoki, Sahararen askatasuna nahi dute, beraien identitatea mantendu nahi dutelako. Bizi duten egoera nahiko zaila da. Kanpotik heltzen zaie laguntza humanitarioari esker bizi dira. Askotan ez dute zer jan, kanpamentu batzuetan argirik eta urik barik bizi dira, euriteak daudenean batzuk etxerik barik gelditzen dira...

Zein mezu ekarri duzu handik?

Gure laguntza ezinbestekoa dela eurentzat. Eurak gudan dute esperantza.

Gaixotasunen bat ere harrapatu ei duzu. Zer moduz zaude?

Bai. Batek ezik, beste guztiok beherakoa harrapatu dugu. Abisatu ziguten ziurrenik zerbait harrapatuko genuela, baina bueno, azkenean denak sendatu gara.

Etorkizunean bueltatzeko asmorik bai?

Bai, dudarik barik. Han egin dugun egonaldiak lagundu dit munduari bestel begi batzuekin begiratzeko.

Amaitzeko, haiei eskerrak eman nahi nizkieke, niretzat ohorea izan baita egun horiek hain pertsona bereziekin ematea. Daukaten indarrak benetako inbidia eman dit. Ikusi dut han pozik bizi direla hemen ustez bizitzeko behar duguna barik ere, eta horrek irakaspena eman dit. Hain egoera zailean bizi arren, ez dute irribarrerik galtzen. Zorte handia izan dut, euren zoriontasuna kutsatu didatelako.



*“Sahararren artean
egin dudan
egonaldiak lagundu
dit munduari beste
begie batzuekin
begiratzeko”*

AITANA CORTES



Bisitariak ugaritzen

ARGAZKIA: FERNAN OREGI
TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Herritar askori entzun diogu azken aldian komentarioa: “Karakatera gero eta jende gehiagok igotzen du asteburuetan, ezta?” Hala dirudi, eta, ez, da harritzekoa, halako leku ederra izanda.

Inkesta fidagarrien faltan, ezin jakin bisitari gehiago ibiltzea ondare megalitikoaren berri zabaldu izanaren ondorioa den, ala, besterik barik, eguraldi onaren eragina. Seguruena, izango du bietatik zeozer.

Gaur gaurkoz, barregurea ematen du bisitari gehiago ibiltzeak lekarzkeen albo kalteak aipatzeak, baina aurreikus litezke: aparkatzeko leku falta, isiltasun falta... Amigo!





Dolmenen Ibilbidea ezagutarazteko ekimenak



Udaletako, Aranzadiko eta Debegesako ordezkariak egueneko aurkezpenean.

Datozen hilabeteotan, mendigaineko Dolmenen Ibilbidea ezagutarazteko hainbat ekimen abiatuko dituzte, besteak beste: Gizaburuagako indusketaren II. fasea, bisita gidatuak eta berreraiketa birtualak...

Ekimenok Bergarako, Elgoibarko eta Soralezeko Udalek bultzatutako planaren barruan daude, eta Debegesa, Aldundia eta Aranzadi elkartearekin batera gauzatuko da. Aurtun, udalek proiektuari egindako diru-ekarpenak nabarmen igoko dira: Soralezeko Udalak 10.000 euro bideratuko ditu eta Elgoibarkoak 7.000. Bergarak lehengo kopuruari eutsiko dio: 2.500 euro. Alkatearen esanetan plan horrekin "salto kualitatiboa" emango da mendigaineko egitasmo arkeologiko eta turistikoaren garapenari dagokionez.

Boluntarioak behar dituzte

Aranzadik ekainaren 2an ekingo dio Gizaburuagako indusketaren bigarren faseari. Jesus Tapiak azaldu duenez, harlauzaren azpiko aldea induskatuko dute orain eta itxaropena dute aztarna gehiago aurkitzeko. Aurreikusi dutenaren arabera, lanek bi aste iraungo dute.

Horretarako, boluntarioen laguntza beharrik dutenez, izena eman daiteke Jesus Tapiari mezua idatzita: jtapia@aranzadi.eus - 676 49 01 43 (Jesus Tapia).

Datozen egunotan, Aranzadik hiru herrietan antolatuko diren informazio batzarretan parte hartuko du; bertatik bertara, herritarrei orain arte egindakoaren eta etorkizunean egin nahi denaren berri emateko. Besteak beste, monumentuen berreraiketa birtualak egingo dira bisitariak mugikorren bitartez ikus ditzaten.

Bisita gidatuak

Ekainetik aurrera, Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko bederatzi bisita gidatu antolatuko dituzte, 9 kilometroko joan-etorria eginez Karakatetik Irukurutzetara. Guztiak domeketan izango dira, goizeko 10:30etik 13:00era bitartean. Nobedade moduan zera jakinarazi dute, bisita bakoitzaren ostean, inguruko produktuekin prestatutako hamaiketako eskainiko dutela. Izena emateko Debegesara deitu behar da, 943 82 01 10 telefonora edo turismo@debegesa.eus helbidera idatzi. Lehenengo bisita ekainaren 11n izango da.

Bi peoi kontratatzeke deialdia

Udalak bi pertsona kontratatuko ditu bi hilabete eta erdiz peoi lanak egiteko, egun erdiko lanaldiarekin. Eskaera-orria udaletxean bete behar da eta epea zabalik dago hilaren 31ra arte.

Grebak jarraipen garrantzitsua herrian

Hezkuntza arloko grebak jarraipen handia izan dute herrian. Joan zen martitzenean, Plaentxi herri-ikastetxeko irakasleen %89k egin zuen greba eta Institutuko irakasleen %43k. Haur eskolan, aurreko deialdiren batean bai, baina oraingoan ez zuten grebarik egin.

Foroa Maddalen Iriarte eta Unai Larreategirekin

EH Bilduk antolatuta, datorren egunean, prozesu eratzaillea aurkezteko foroa egingo dute Antzokian. Foroa arratsaldeko 19:00etan hasiko da, bertan parte hartuko dute Maddalen Iriarte eta Unai Larreategi EH Bilduko kideek.



Enpresako ordezkariak eta alkatea inaugurazio ekitaldian.

Elesa-Ganterrek pabiloia inauguratu du

Hilaren 19an, *Elesa-Ganter Iberica* lantegiak pabiloi berria inauguratu zuen. Ekitaldian parte hartu zuten *Elesa* eta *Ganter* enpresetako ordezkari nagusiek, langileek eta alkateak.

Elesa-Ganter Ibericak 19 langile ditu gaur egun, eta konpainiak iberiar penintsulan duen ekoizpen eta logistika gune nagusia da

Soraluzekoa. Aurten, milioi bat euro baino gehiagoko inbertsioa egin dute 1.000 m² dituen pabiloia eraikitzeko. Jesus Blanco gerentearen esanetan, pabiloi berriak ahalmen handiagoa emango dio enpresari produktuak stockean izateko; ondorioz, merkatuan "lehiakorragoak" izan ahalko dute.

Zibismoaren ordenantza onartu da, adostasunik barik

Maiatzeko udalbatzarrak Udal Gobernuaren aldeko bozkekin onartu zuen Zibismoaren udal-ordenantza berria. Dokumentu horretan daude zehaztuta, herritarrek, eragileek eta udalak berak bete beharreko arauak, eta, horiek bete ezean ezarriko zaizkien isunen larritasun maila. EH Bilduk aurka bozkatu zuen eta salatu du zenbait arauk herritarren adierazpen askatasuna mugatzen dutela, pankartak jartzeko baimena eskatu beharra esaterako. Udal Gobernuak ukatu egin du adierazpen


askatasuna urratuko duenik, eta dagoeneko ordenantza indarrean dagoen arren, adierazi du arau berriak "ez dituztela egun batetik bestera ezarriko".

Tapioen bilketa

Udalbatzarrak aho batez onartu zuen elkartasun ekimenetarako tapoiak biltzeko hitzarmena sinatzea SEUR etxearekin. Hitzarmenaren arabera, hemendik aurrera SEUR arduratuko da ekimenarekin bat egiten duten herriko komertzioetan tapoiak jaso eta dagokien lekura eramateaz.

SAREAN ARRANTZATUAK

Jokin Etxaniz Amorrainak Deba ibaian



Maiatzaren leian, Ioseba Otaño oñatiarrak argazkiko amorraina harrapatu ei zuen San Prudentzio inguruan: 30 cmko luzeera eta 300 grko pisua zituen.

Txaro Lete Larrosak Gabolatsen



Gabolats kalean ere udaberria loratu da. Loretan dira auzokideren batek zaintzen dituen larrosa gorriak.

AURREMATRIKULAK: Ekainaren 5etik 16ra.



*“Ezagutzan
inbertitzeak dakartza
interesik onenak”.*

Franklin, Benjamin

ERDI MAILAKO ZIKLOAK:

- ◆ Mekanizazioa.
 - ◆ Administrarritza kudeaketa.
 - ◆ Instalazio elektrikoak eta automatikoak.
- Euskaran B1 titulua lortzen duzu.

GOI MAILAKO ZIKLOAK:

- ◆ Diseinua Fabrikazio Mekanikoan.
- ◆ Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa.
- ◆ Automatizazioa eta Robotika Industrialia.
- ◆ Administrazioa eta Finantzak.
- ◆ Mekatronika Industrialia.

Euskaran B2 titulua lortzen duzu.

HOTZEKO ESTANPAZIOAN ESPEZIALIZAZIO GRADUONDOA.

ESKAIINTZA PARTZIALA: Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioan.

Heziketa **DUALa**: Lana eta ikasketak txandakatuz.

ETHAZI: Erronketan oinarritutako Etekin Handiko Zikloak.

Goi Mailako ziklo eleanitzak: Ingelesez ikasteko aukera.

Goi Mailarako Sarbide Frogarako prestaketa.

- ◆ Arratsaldez Ingelesezko klaseak doan.
- ◆ Langile eta langabetuentzat ikastaroak.
- ◆ Eskaren araberako formakuntza.
- ◆ **Erasmus+**, praktikak Europan egiteko aukera.
- ◆ Ikasle eta ikasle-orientzat lan-poltsa zerbitzua.
- ◆ Orientazio zerbitzua.

Miguel Altuna LHII

Ibargarai 1, 20.570

BERGARA

943 76 38 40 / 943 76 70 49

saremail@imaltuna.com



Herriko artisauen azoka hilaren 4an



lazko azoka.

Ekainaren 4an, herriko hainbat artisauk antolatuta, Eskulangintza Azoka egingo da Zubi Nagusian, goizeko 11:00etan hasi eta 14:30ak bitartean. Bertan jarriko dituzte

salgai herriko artisauek egindako hainbat produktu: jostkintzakoak, narruarekin egindakoak, gaztak, otarrak, pitxiak, serigrafia...

Saharako gatazkari buruzko jardunaldia



Domekan, Saharako gatazkaren gaineko jardunaldiak antolatu dituzte Arranoan. Gatazkaren bilkaera historikoa eta garatzen dihardurten egitasmoen berri emateko honako hauek gonbidatu dituzte: Yamilia Dambar Aaiuneko aktibista; Aitziber Osa Oporrak Bakean eta Bubiher taldeetako kidea. Jardunaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da Arrano elkartearen, eta 20:00etatik aurrera musika emanaldia izango da Atropa Belledonne talde azpeitiarraren eskutik.

Udako ikastaroetarako dirulaguntzak

Zabalik dago UEUko 45. Uda Ikastaroetan izena emateko epea; Udaleko Hizkuntza Politikaren Batzordeak matrikula-prezioaren %50eko laguntza emango die parte hartzen duten herritarrei. Ikastaroetan izena emateko epea maiatzaren 15ean hasi zen eta ikastaroak hasi baino aste bete lehenagora arte egongo da zabalik.

Balkoi eta leihoetako lore-lehiaketa

Iazko edizioak izandako arrakastaren ostean, balkoi eta leihoetako lore-lehiaketa antolatu du aurten ere Udaleko Ingurumen Batzordeak; maiatzaren 31ra arte dago izena emateko aukera. Lehenengo saria 150 eurokoa izango da, eta bigarrena 75 eurokoa. Sari banaketa ekainaren 12an egingo da goizeko 11:00etan Plaza Berrian.

Gas intoxikazioagatik erietxera

Domeka gauean Sagar Errekan bizi den familia bateko lau pertsona erietxera eraman behar izan zituzten, etxean izandako gas-isuriak intoxikatuta. Itxura denez, berogailuaren galdararen matxura batek eragin zuen gas-isuria. Auzokide batek baieztatu digunez, intoxikatu ziren lau pertsonak etxean eta ondo daude.

908 bozka


ARGAZKIAK: FERNAN OREGI ETA EGOITZ UNAMUNO

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

908 soraluzetarrek eman zuten bozka maiatzaren 7an, Gure Esku Dagok antolatu zuen herri-galdeketan; bozkatzeko aukera izan zuten herritarren %27,29ak (Debabarrean %18ak).

Euskal Herri independente bateko herritar izan nahi duten galdetuta, baiezkoak izan ziren 843 bozka, ezezkoak 43, zuriak 19 eta baliogabeak 3.

Antolatzaileak pozik azaldu dira lortutako parte hartzearekin eta herritarrei eskerrak eman dizkiete.





3 SUDOKU

Ipirri sudoku bakoitzeko letraak dagokien tokian, Gogoratu hitzi bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau laukiako area bakoitzeko.



ZOPA ala
POZA?

A			Z
		P	
	Z		
O			

B			I
L		B	
	A		

BLAI
ala **BILA**?



ZAPI
ala **AZPI**?

A	P		
		A	
			I
		Z	

Ezetz asmatu!

Osatu esanera zaharra:



Zozok belezari

ZORTZI ALDEAK

Aurkitu bi inuti hauen artean dauden zortzi aldeak



Haurren danborrada ez da egingo parte-hartzaile faltagatik

2009an haurren lehen danborrada antolatzen hasi ginen ilusio handiz, bai parte-hartzaileen aldetik bai antolakuntza eta bolondresen aldetik. Itxuraz, ilusio hori apaltzen joan da, partehartzaileen aldetik, behintzat, zeren eta urtetik urtera gero eta haur gutxiagok eman dute parte hartzeko izena.

Nahiz eta antolakuntzaren aldetik erraztasun handiagoak eman zaizkien umeei, parte hartzeko ahalik eta eragozpen gutxien izan zezaten (entsaiuak gutxituz, haur txikiaren ibilbidea txikituz...) partehartzaileen kopuruak behera egin du. Azken urteotan, ohiko deialdia egiteaz gain, antolakuntzatik pertsonalki aritu behar izan gara haur bila beharrezkoa zitzaigun gutxieneko parte-hartzaile kopurura heltzeko.

Aurten inoiz baino parte-hartzaile gutxiagok eman du izena eta beharrezkoa den gutxieneko kopuru hortara heldu ez garaenez, pena haundiz baina haurren danborradaren antolakuntzak erabaki du haurren danborrada bertan behera uztea.

Hori horrela, idatzi honen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu aurten parte hartzeko asmoa zuten haur guztiei, aurreko urteetan parte hartu dutenei eta laguntzen ibili izan diren persona eta elkarteei.

Haurren danborradaren batzordea

"Roundup" herbizida nire izenean ez, ez eta ez!

A ze eskandalua! Ezin sinetsita nago, gure herriko kale bazterretan "Roundup" herbizida famatua erabiltzen ari dira!! Famatua eta ospe handikoa da mundu guztian, bai horixe, bere ezaugarri hiltzaileengatik. Hiltzen ditu intsektuak, lurrazpiko zizareak, amama-mantangorriak, hil inguruko belar ta landare guztiak, hil bizitza bera. Ingurumenarentzat, aireareztat eta urarentzat, izugarritzko mehatxua da; izan ere, lurrazpiko ura kutsatzen du eta, ikerketek erakutsi duten bezala, ez delako biodegradatzen lurra bota eta gero. Guk jaten ditugun barazkietara hel daiteke eta gure osasunari kalte handia eragin.

Hainbat ikerketa zientifikok esaten duten moduan, produktu horrek zera eragin dezake: umeen desoreka hormonalak, ADNan kalteak, testosterona nibel baxuak izatea, gibelego kantzerra, meningitisa, azaleko kantzerra, giltzurrunetako arazoak, antzutasuna, eta abar ...

Hortaz, bizitzaren aurkako ekintza larria denez, produktu hori erabiltzeari uztea eskatzen dut. Eskaera hori zuzenean eta maila pertsonalean dagokionari adierazi ondoren, orain, publikoki eskatzen diot Soralezko Udaletxeari eta bere ordezkari den alkate jaun Iker Aldazabali gure herrian "Roundup" erabiltzeari uztea behin betiko, eta era berean gure herrian produktu hori debekatzeko araudia egitea, gure ingurumenarentzako eta pertsonen osasunerako oso kaltegarria delako, eta bizitzaren beraren kontrako delako.

Nire izenean ez ez eta ez!!!!!!

Ainhitze Elizburu Etxeberria

[Bidali gutunak aldizkaria@pilpilean.com helbidera](mailto:aldizkaria@pilpilean.com)

Herbiziden erabilera

Herbiziden erabilera oso zabaldua dago lorezaintza eta ortuko zereginetan. Azken aldian, hainbat ahotsek salatu dute Udalak oso toxikoak diren pozoinak erabili dituela, osasunarentzat kaltegarriak direnak.



Domiciano Gonzalez
NEKAZARIA

Guk tomatearentzako salda bordelesa erabiltzen dugu, baina patataren harraren kontrako erabiltzeari laga genion pozoil hutsa delako. Harrak eskuz kentzen dizkiet, galdara bat hartuta. Belarrak, berriz, atxurrarekin kentzen ditut. Orain dela bost urte erabaki genuen herbizidak eta pozoil gogorak ez erabiltzea, osasunarendako kaltegarriak direla jakin genuenean. Nahiago produktua galtzea, neure burua edo inor intoxikatzea baino.




Ander Oñate
LEMON LOREZAINZTA

Nik normalean ez dut erabiltzen. Behin erabili nuen bat, bezeroak hala eskatuta, baina gainerakoan ez ditut erabiltzen. Herbizidak ez dira desagertzen, urarekin batera zabaldu egiten dira inguruan. Badira bestelako teknika asko eta asko lan bera egiteko balio dezaketena: piñu azala, lurra, lastoa, telak... Kontua da planifikatzea eta mantentze-lan iraunkorra egitea, gero muturreko neurriak hartzen ibili beharrik ez izateko.



**Isa
Camacho**
BELAITZ HORNIGAIK

Bezeroen gehiengoak metodo garbietarako joera du; herbizida totala oso gutxi saltzen da. Aukera guztiak eskaini arren, ahalegintzen gara bezero bakoitzari egokitutako alternatiba garbienak gomendatzen, batez ere produktu ekologikoak: ozpin alkoholduna, diatomea lurra... eta baita bestelako metodoak ere: garbiketarako eskuz egitea, beste espezie batzuk landatzea... Gakoa heziketa da eta lanak planifikatzea, lan koadernoaren bitartez.



**Iker
Aldazabal**
ALKATEA

Udal brigadak erabiltzen dituen produktuak legezkoak dira, brigadako langileak formatuta daude eta hartu beharreko segurtasun neurriak hartzen dituzte. Udal Gobernuaren asmoa herriko guneak txukun mantentzea da eta jardun horrekin jarraituko dugu. Gaia ongi aztertu dugu, eta hornitzaileak aholkatuta, aurrerantzean produktu ekologikoak erabiliko ditugu, besteak beste, ozpin alkoholduna.



**Alberto
Iñurrieta**

Arazoak eta estresak (II)

“Arazoa” deitzen dioguna, ez da egoerari begiratzeko modu bat besterik. Pertsona batentzat “arazoa” dena, beste batentzat ez da. Haratago joanda, momentu batean “arazo” bezala bizitzen duguna, beste momentu batean ez dugu “arazo” moduan ikusiko. Zeozer “arazotzat” jotzen dugu geure egoeraren arabera. “Arazoaren” atzean pertsonak daude, edo pertsona horien begiradak. Baina zenbateraino dago gure esku “arazoa” konponbide bezala ikustea? Horixe da gakoa, atentzioa nora bideratzen dugun, arreta non jartzen dugun; gu garen begiralea non kokatzen dugun.

Gure bizitzak ahalduz bidean aurrera egin dezan, komeni zaigu gogoratzea Permakulturak aldarrikatzen duen esaldia: “Arazoaren baitan datza erantzuna”. Ikuspegi horrek, arazoaren aurrean larri jarri beharrean, gogotsu eta kuriositatez beteta jartzeko aukera emango digu.



Ascensori, musikariari, aitortza

Ascensio Gurrutxaga, urte luzez herriko abade eta organista izan zena, omentzeko kontzertua eskainiko dute ekainaren 17an elizan; abesbatzak, txistulariek eta Iñigo Alberdi organistak parte hartuko dute bertan.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**



Kontzertuan parte hartuko duten hainbat herritar.

Herriko hainbat musikagilek eta Udalak antolatuta, ekainean zehar hainbat ekimen egingo dira Ascensio Gurrutxaga zenaren musika ondarea ezagutarazteko. Ekainaren 2tik aurrera, erakusketa jarriko dute ikusgai kiroldegian, erakusketan bere argazki eta partiturak egongo dira ikusgai eta zabalik egongo da ekainaren 17ra arte. Egun horretan, arratsaldeko 20:00etan, Gurrutxaga omentzeko kontzertua eskainiko dute elizan. Bertan parte hartuko dute Ezoziko Ama abesbatzak, hainbat belaunalditako txistulariek eta Iñigo Alberdi organojoleak.

Merezitako omenaldia

Alberdiren esanetan “Aszensiok laga zuen ondarea Elizaren inguruan mendetan zehar sortu izan den ondare musikaren parte bat da, eta ondare horrek balore handia du.” Domentx Uzinek goraiatu du Ascensio herrian egin zuen lana, “maila handiko musikaria zen, eta lan handia egin zuen herrian; bandari, txistulariei, abesbatzari lagundu zien. Azkenean, merezi duen mailako omenaldia egingo diogu”.

Ondarea udal-artxiboan

Urte hasieran, Iñigo Alberdi musikariak dohaintzan eman zizkion Soralezuko Udalari, bere garaian, Ascensio berak eskura entregatu zizkion materialak eta Udalak bere gain hartu zuen jasotako materiala katalogatu eta artxibatzeke lana. Hilabeteotan, Domentx Uzin musikariak eta Amaia Aldai artxiboko arduradunak

material hori guztia sailkatu eta antolatu dute udal-artxiboan, guztira, 300 dokumentu inguru. Tartean, badira, abesbatza, banda eta organorako egindako arregloak, baita berak sortutako doinuen partiturak ere. Ascensioaren artxiboarekin batera, bere aurretik herriko organojole izan zen Modesto Amuchasteguiaren artxiboko dokumentuak ere antolatu dituzte, Pablo Arruabarrena organojoleak dohaintzan eman ostean.

BIOGRAFIA



Ascensio Gurrutxaga (1918-2001)

Ascensio Gurrutxaga Azpeitiko Nuarbe auzoan jaio zen. Hamairu urte zituela, aitak Azpeitiko parrokiara bidali zuen,

solfeoa, pianoa eta organoa jotzen ikas zezan. 1935ean, 17 urterekin, Bilbora joan zen, organoa jo eta solfeoa irakastera. 1940an, 22 urterekin, apaiz izateko ikasketak hasi zituen Gasteizen. 1951n apaiz izendatu zuten eta Soralezera bidali zuten. Parrokiko organista izan zen eta musika arloan laguntza handia eskaini zien soralezetarrei. 2001ean hil zen, gaixotasun luze baten ostean.

Domentx Uzin

“Ascensio zen musikaz gehien zekiena, eta denek berarengana jotzen zuten laguntza eske”

Azken hilabeteotan, Domentx Uzin musikariak eta Amaia Aldai udal-artxiboko arduradunak, Ascensio lagatako dokumentuak katalogatzeko lanean jardun dute. Dagoeneko amaitu dituzte lanak eta dokumentazio guztia gordeta dago udal-artxiboan.

Zein lan egin duzue?

Guztira 300 dokumentu baino gehiago ordenatu ditugu: izenburuak ipini, zeinena den zehaztu... Uste baino lan handiagoa izan da, baina amaitu dugu azkenean, eta, orain, Ascensio eta Modestoren fondoak eskuragai daude udal-artxiboan.

Zer aurkitu duzue artxiboan?

Bere historia musikala, eta, azken batean, joan den mendeko Soraluzeko banda sonora. Banda, txistua, soina, elizako kantuak, solfeoa... Musika erlijiosoa da gehiena, baina badira organorako musika klasikoa eta gauza modernoak ere; fadoren bat barne. Baita berak sortutako zenbait kanturen partiturak ere.

Zein dira kantu horiek?

Ezoziko Amaren ereserki bat, Santa Barbararen omenezko kantua (Kañoi fabrikako patroia)... Ez dira asko. Gehiago dira banda, txistu, abesbatza eta organorako moldaketak. Berak urte askoan elizako organoa jo zuen eta mezetan edo komunioan, bere gustuko piezak jotzen zituen.

Herriko musikariek harreman handia zuen?

Handia. Jende askori lagundu zion: abesbatzari sorreran, *Blues Bells* taldeari, txistulariek eta bandarekin ere harreman handia zuen... Bera zen herrian musikaz gehiena zekiena eta denek berari galdetzen zioten, edo aholkua eskatzen. Esaterako, txistuarekin jotzeko, momentuan eta buruz teklatuan tonua aldatzeko gai zen. Gainerako guztiengandik argi urte askotara zegoen.



Domentx eta Amaia udal-artxiboan.

“Bere historia musikala, joan den mendeko Soraluzeko banda sonora da”

Zela lortu zuen Ascensio halako maila?

Hamairu urte zituenetik jaso zituen musika eskolak. Gasteizko seminarioan ikasi zuen, eta han oso giro musikal potentea zegoen. Oso maila altuko piezak lantzen zituzten. Esaterako, bere paperen artean azaldu dira Francisco Escudero konpositore eta maisu handiak egindako oharrak. Armonia ikasi zuen berarekin, korrespondentziaz. Escudero zoriontzen zuen bere lanengatik eta animatzen zuen armoniako ikasketa ofizialak egitera. Pentsa zelako maila izango Nuarbeko mutil gazteak... Baina berak herri txiki batean gelditzea erabaki zuen, arrazoia, ez dakigu. Herrian ez zen behar beste baloratu bere lana. Gehienak ez ziren konturatu abade hark zelako gaitasuna zuen.

Horregatik erabaki duzue omenaldia egitea?

Bai, bere figura baloratu dadin eta ez dadin ahaztu. Azkenean, merezi zuen moduko omenaldi musikala egingo zaio.

Ascensioekin zerikusia duten piezak izango dira, berak jotakoak, edo berak sortutakoak: Ezoziko Ama, Santa Ageda... Azken hau Imanol Lopez txistulariak moldatu du abesbatzak lau ahotsetara kantatu dezan. Pablo Sorozabalen *Gernika* ere joko dugu.

Zuk ezagutu zenuen?

Ba gutxi, akordua daukat gaztetan organoa jotzen ikusi izana. Gaztetxoak ginenean Korura etortzen zen guri erakustera, baina gu barrezka-eta ibiltzen ginen, eta, azkenean, etortzeari laga zion.



Escudero maisuaren oharrak Ascensioaren ariketetan.

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzan erretako bildotza
Etxeko fritxoak
Souflera
Tel.: 943 75 10 02

Armendi Jatetxea



KM design
K I R U M U N I T A T A K
943 76 00 85
www.kmdesign.es
Pol. Amalago 5 BERGARA

- Diseinuetan Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Hornu-ostalaritza
- Logelak
- Zonak
- Aleak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

IZXGUIRRE
Igeltzeritza



Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erretformak • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 067 200

Etxabe Harategia



- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Sorakuzko baserrietako produktuetan
- Etxeko tripaki eta txistorrak

Etxaburuta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

Jatorria plazarra, bertsitate bertara

Batzoki
BATAKOR



egunko menua
asteburuetan
karta eta zozkoiak

ogartekoak eta
hamburgeriak
enkargu bereziak

benito eta
lagun ardoak
burtsak

Erretorak: 943 75 20 35

ELIZPE
HORTZ KLINIKA



Zure gertuko hortz klinika,
puntu-puntu teknologian lan
egiten dugu. Cad-Cam sistema
bertzeak erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUCE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizepe.lfp@gmail.com

Ordutegia:
Asteburuetan, ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

EDURTZA
taberna

Ogortekoak, zozkoak,
hamburgeriak, pinboak eta pizza
Patala botikak egiten dira enkarguz



Santa Ana 18
Tel. 943 75 13 83

Hortz klinika

27 urteko esperientzia

Javier Alonso
Medulorinatologia
R.2, 20005/404

Karla Guñe
Odontologia
R.2, 49.001.148

hiru gabeko anestesio,
odontologia orokorra,
gripes fritxo eta mugimena,
odontopediatria, ortodontia,
epitaxiak, estetik...

Erretorak 1 - Tel.: 943 75 16 13



BOLIA
TABERNA



Pinboak, ardoak,
kombinatuak
Gazte-giroko festa
Tel.: 943 02 95 02

P Iragarri hemen zure negozioa

Pil-pilean herri komunikabidea
686 028 946 (Gaizka) · publizitate@pilpilean.com

Kontulan
aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, zitapenak · Administrazioa lanak
Tratamendu burokratikoak · Lan-erleko aholkularitza
Enpresen konstituzio/ideazioak · Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. esk. 20190 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

Wendata



Enkarguak egiten dira
Eramateko prestozten da
Menu bereziak enkarguz

Tel.: 943 25 74 52 / 680 75 40 60

MABEL
INEFAPAINDEGIA

Isenritzako keratina
tratamendua
Depilazioa
Re-austriar gabeko
permanentea
Makilajia
Manikura
ondiraunkorra
Solarkuma

Erretorak 1
Tel.: 943 75 14 89



Euskalzaletasunaren alde:

SOMABE **Aras** **ALBISUA** **laibi** **SORALUCE**
ELECTRICIDAD

Omenaldia berrogei urteko ibilbideari



Jokalari eta zuzendaritzakide ohiak.

Maiatzaren 13an, Soraluze futbol-taldeak 40 urteko ibilbidea ospatu zuten. Jokalari eta zuzendaritzakide ohi askok aprobetxatu zuten

aspaldiko ezagunak agurtzeko. Partidua jokatu zuten jokalari ohiek hitzordua jarri zuten hamar urte barru berriz zelaian batzeko.

Udaberria gozamen



Hilaren 14an, mendi-taldeko ume eta gurasoak Sagastarri mendian pasatu zuten eguna, eguraldi zoragarriarekin. Domeka honetan,

Katillotxu mendira (Mundaka) antolatu dute irteera eta kobazuloan ibiltzeko frontala eroateko eskatu dute.

Mouad hirugarren Gasteizko skate txapelketan

Mouad Bemsallem soraluzetarra hirugarren sailkatu zen joan zen zapatuan Gasteizko Bolinaga gunean jokaturako King of the Ebro skate txapelketan. Mouadek Lazkaoko Skate Goroskt Klubaren ordezkaritza moduan hartu zuen parte, 18 urtetik beherako kategorian.

Ixa Rodriguezek garaipena lortu du itzulerako borrokaldian

Zortzi hilabete lehiatu barik egon eta gero, joan zen barixakuan ringera bueltatu zen Neskaboket Bilboko Miribillan antolatutako jaialdian. Itzulerako lehen borrokaldian Eneritz Borinaga garaitu zuen.

Debarroko final aurrekoak martitzenean

LXX. Debarroko Txapelketa azken fasean da. Kadete mailan, Aimar Marquez eta Julen Gallastegi 3. postuan daude bi partiduren faltan. Nagusien mailan, lehenengo sailkatu dira Atxotegi-Bolinaga, eta, laugarren, Santamaria-Kortabarria. Martitzenean, arratsaldeko 20:00etan, jokatuko dituzte final aurreko partiduak. Finalak ekainaren 24an jokatuko dituzte Soraluzen.

MENDIZABAL
okindegia
Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostirlera:
09:00 - 13:15
17:00 - 20:00
Larunbetak eta igandeak
08:00 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



SUMA
basolanak

11142, 635 71 34 08

baso garbierak eta entresakak
zortzi laguneko taldea zure zerbitzura



AURREZTU ENERGIA

Berota ura eguzki izpiekin edo oliarekin

fontaneria
San Andres
Iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

amaita dekorazioak industriala

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30



TXOKO
KAFETEGIA

Eguneko menua, razioak, plater konbinatuak, hamburgeresak, ogitartekoak, gosaria, pizzak...

Kalebarreneko kafe kartolan
Tel. 943 75 17 89

Enkarguak egiten dira

TXURRUKA
JATETXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta
www.burruka.com
Tel.: 943 75 15 81



KLB6

Kalebarren 6
943 57 76 28
Mutil-eta nesken modagaitza

Alas
www.alas.com

Ogi Jauri
INLENO
943 57 76 28

EMIZ
943 57 76 28

NEW BALANCE

MAISON MARTIN MARGIELA
VERO MODA



TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostirlera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbatak: 08:30-13:30
Igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia, prentsa, pastilak, botinak...
Etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43



Liburudenda
Opariak
Goxotegia
Prentsa

Eta orain... KOPISTEGI ZERBITZUA ere bai:

Fotokopiak, inpresioa koloretan, papel fotografikoa, plastifikazioa, enkuadernazioa...
Fotokopistegietako preziotan.

Tel.: 943 75 13 20 • E-posta: iratxosoraluze@gmail.com

iratxo



Bertsoa eta dantza ekaineko Euskal Jaietan



Ekainaren 2an hasi eta ekainaren 10era bitartean egingo dira aurtengo Euskal Jaia. Ekainaren 2an, Udaberriko bertso-saioa egongo da Antzokian, gaueko 22:15ean eta honako bertsolari hauek arituko dira bertsoan: Lujanbio, Mendiluze, Amuriza eta Iturriaga. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, 5 eurotan.

Ekainaren 4an, haurren XLVII. Euskal Jaia egingo da, eta egun

osoan zehar *Urrats* dantza-taldeko dantzari txikiak Debagoieneko dantza-taldeetako dantzariekin ibiliko dira.

Ekainaren 10ean, Ezozin egingo den *Erromerixa Egunak* itxiko du aurtengo egitaraua. Urtero moduan, egun osoko jaia izango da. Aurten, Aretxabaletako gaiteroak eta Imuntzo eta Belokiren erromeria-taldea gonbidatuko dituzte.

Monologoa eta kontzertua Gaztelupen



Gaztelupe tabernaren arduradunek jakinarazi dute terrazan kultur ekimenak antolatzeari berrekingo diotela. Bi ekitaldi iragarri dituzte datorren hilerako: ekainaren 3an, afari-monologoa egingo da, Estefy Llaryora umoregileak girotuta eta ekainaren 10an, aldiz, *Bicho'z en direzto* rock and roll taldearen kontzertua.

Irakurle sarituak



Irakurri Gozatu eta Oparitu egitasmoan parte hartzen diharduten irakurle gaztetxoaren artean, 30€ko opari-txekeak zozkatu dira euskarazko liburutan gastatzeko. Sarituak Irati Aguado (gaztetxoetan) eta Leire Ginea (helduetan) izan dira.

Irakurri Gozatu eta Oparitu egitasmoa maiatzaren 31ra arte egingo da martxan eta ekainaren 9ra arteko epea egingo da liburuak erosteko.

Ordutegi berria liburutegian

Udal Liburutegiak ordutegi berria du maiatzetik aurrera. Esan bezala, aurreratzean, astean hiru egunetan goizez ere zabalik egingo da: martitzenetan, eguaztenetan eta eguenetan, 11:00etatik 13:00etara. Arratsaldetan, ostera, 16:30etik 19:30era zabalduko da, barixakuetan izan ezik; barixakuetan 16:00etatik 19:00etara egingo da zabalik.

Arantzazuko artelanak



**Roman
Olaizola**

Gure artean nork ez du noizbait Urbia aldera irteera bat egin?. Gehienok ezagutzen dugu inguru ikusgarri hori. Hala ere, Arantzazuko Santutegia bertan izanda, jende askok ez die bertan gordetzen diren artelan ederrei erreparatu. Bertan, Euskal Herriak eman dituen artista onenen lanak ikus daitezke. Honako hauenak, hain zuzen ere:

- Francisco Javier Saenz de Oizak eta Luis Laorgak altxatutako eraikuntza ederra.
- Jorge Oteizaren pietatea eta apostoluen frisoa.
- Eduardo Chillidaren burdinezko ateak.
- Nestor Basterretxeak kriptan egindako margolanak.



- Javier Eulate frantziskotarraren transeptuko beirateak.
- Luzio Muñoz madrildarrak itxuratutako erretaula miresgarria.

Museo batean ez bada, gurean ez da erraza horrenbeste “talentu” gozatzeko aukera izatea hain espazio txikian. Gomendatzen dizuet.

Ethiopia



**Pedri
Lete**

Bidaia interesgarri asko egin ditut, baina Ethiopiarra egin nuena izan zen gehien inpaktatu ninduenetako bat. Zergatik? Euren artean oso ezberdinak diren bi zatitan banatua dagoelako: iparraldea eta hegoaldea. Iparraldea, beharbada, pobregoa izango da baina monumentalagoa da. Monumentuen artean aipagarria da, esaterako, Gondarko gaztelua, baina inpaktanteena *Labibela* da. Haitzean zulatutako munduko eliza multzorik zaharrena dago bertan, ikusgarriak benetan. Gainera, jendea oso atsegina eta zabala da.

Hiriburuak, Addis Ababak (eurak hala esaten diote), ez du interes berezirik baina gomendagarria da Sehraton hotelean kafe bat hartzea, Afrika osoko hotelik garesti eta luxuzkoenean. Sartzeko segurtasun kontrolak pasatu behar dira. Hiriburua herrialdearen erdialdean dago.

Hegoaldean, ostera, tribuak daude: *Karo*, *Hamer*, *Konso* eta *Mursiak*. Karo tribukoak *Oma* ibaiaren ondoan bizi dira eta badituzte guri atzera eragiten diguten hainbat ohitura. Ume bat jaiotzen denean, arruntena izaten da lehenengo azpiko haginak haztea; bada, begira, lehenengo gainekoak ateratzen bazaizkio, ibaira jaurtitzen dute, kokodri loek jan dezaten, pentsatzen dutelako zorte txarra ekarriko diela.

Hamer tribukoei asko gustatzen zaie euren buruak edertzea eta apaintzea. *Konso* tribukoak animistak dira,



eta zuen hobebereaz diotsuet, hobe duzuela eurei argazkirik ez ateratzea. Sinistuta daude argazkiarekin batera arima ohostuko dietela. *Mursiak* borrokariak dira eta nahiko erasokorrak. Oraindik ere, narrutsik dabilta eta emakumezkoek platera jartzen dute ezpanetan.

Gomendatzen dizuet Ethiopiarra joatea.

Ate Irekiak Maiatzak 12
Puertas Abiertas 12 de Mayo



ERDI MAILA

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrozeria

Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...

- Erizaintzaren laguntza
- Soldadura eta galdaragintza

GOI MAILA


- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haur-hezkuntza
- Metal eraikuntzak

Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...

- Automozioa
- Gizarteratzea

Javier Agirregomezkorta

Venezuelatik Soraluzera



TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Javier Agirregomezkorta Corona Venezuelako San Diego herrian jaio zen duela 37 urte. Iazko urritik Soraluzen bizi da emaztearekin, Osumazpi baserrian; bere aitaren jaiotetxean. Javierren aita, Javier Agirregomezkorta Gantxegi, 70eko hamarkadan joan zen Venezuelara lanera.

Noiz etorri zinen lehenengoz?

2013an, aita hil ostean. Aitaren errauts batzuek ekarri nituen, eta, iritsi orduko, maitemindu egin nintzen lurralde honekin. Barruan zerbaitek esan zidan: “zuk hemen egon behar duzu”.

Aldaketa handia izango zen ezta?

Lehenengo hiru gauak lorik hartu ezinda eman nituen baserrian, isiltasunagatik.

Noiz etorri zinen Soraluzera bizitzera?

Iazko urriaren leian, emaztearekin batera. Zorionez, lana aurkitu dut Elgoibarko gimnasio batean, eta boxeo eskolak ematen ditut han.

Kirolaria zara?

Bai, gaztetxotatik egiten dut kirola, batez ere, igeriketa; eta atletismoa. Caraboboko selekzioan ere parte hartu nuen. Gaztetxotan lizeo militarrean ikasi nuen, eta, han,

“Iritsi orduko maitemindu nintzen lurralde honekin”

kirol ugari egiten genuen. Gerora, akademia militarrean ere bai. Chavez iritsi zenean, laga nituen akademia eta herrialdea.

Kasualitatez, modelo lehiaketa bat irabazi nuen, eta lana eskaini zidaten Errepublikan Dominikanan. Han ezagutu nuen emaztea. Bera ere modeloa da. Ondoren, Mexiko DFn bizi izan gara hamairu urtez. **Zela ikusten duzu Venezuelako egoera?**

Venezuelak dena du eta ez du ezer. Urtetan herriaren zati bat marginatu egin zen eta ez zitzaion behar zuena eman. Chavez iritsi zen eta agindu zituen denentzako gazteluak eta villak, eta, orduan, justizia egarriz zeuden herritarrek sinetsi zuten sistema berriak “XXI. mendeko sozialismoak” hori guztia ekarriko zuela; baina engainu bat izan da. Eta, noski, engainatua izan zarela onartzea ez da erraza. Ideia oso polita zen baina praktikara eraman zenean aldatu egin zen; korrupzioa agertu zen. Nik, zoritxarrez, txarrena espero dut, jende asko dagoelako armatuta.



1. Iztaxiulat mendian, 5200 m, Mexicon.
2. Mendigaietan, behorrekarekin.
3. Boxeo entrenamenduan.

Sorabox boxeozaleen kluba



TESTUA ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO
Sorabox Soraluzeko boxeozaleen kluba izango da aurrerantzean. Zaletu-talde moduan bi urteko ibilbidea egin ostean, kirol-federazioan erregistratu da, eta, etorkizunean, Sorabox klubeko bazkide direnek aukera izango dute txapelketa ofizialetan lehiatzeko. Ixa Rodriguezen esanetan kirolaren arlotik begiratuta, oso pauso garrantzitsua izango da: “orain arte entrenatzeko taldea zen, baina hemendik aurrera aukera izango dugu Sorabox izenarekin lehiatzeko. Uste dut Soraluzerendako sekulako aukera dela.”

Giro “ona”

Gaur egun, hogeita bost pertsona inguru dira klubean izena emanda daudenak. Soraluzetarrez gain, asko

dira inguruko herrietatik etortzen direnak: Bergararik, Eibartik, Mendarotik, Mutrikutik, Eskoriatatik, Oñatitik... Kirol-talde honek baditu gainerako kirol-taldeen errealitatetik ezberdintzen dituen ezaugarri bereziak, ezohikoak izanik, aipagarri direnak. Deigarria da, esaterako, kopuruari dagokionez, emakume eta gizonen artean parekotasuna egotea, 10 emakumezko eta 15 gizonezko daude. Adinari dagokionez ere, hainbat belaunalditako pertsonak daude: gazteenak 11 urte ditu eta helduenak, berriz, 53 urte. Hizkuntzen erabilerari ere arreta berezia jartzen diote, hala, hizkuntzarik erabiliena gaztelera izan arren, instrukzioak euskaraz

ematen dituzte eta taldekide euskaldunak euskaraz aritzera animatzen dituzte. Galdetu diegun klubeko kide guztiek bereziki nabarmendu dute taldekideen arteko giro “ona”.

Konpetitzen hasiko dira

Klubaren izenean lehiatuko den lehenengo kidea Julen Gallastegi izango da. Hamasei urte ditu eta ekainaren 17an Hernanin izango du estreinako borrokaldea. Ixaren esanetan “Julenek sekulako potentziala dauka. Bere adinerako oso garatua dago eta aurkaria ezin bilatuta ibili gara. Ez da ohikoa 16 urterekin 80 kilo eta horrelako indarra izatea”. Azken hilabeteotan buru-belarri dihardu entrenatzen, astean sei egunez, eta irrikitan dago lehiatzeko. Datozen hilabeteetan




beste bi gaztek ere debutatuko Soraboxen izenean, Adur Odriozolak eta Oussama Hinak.

Espazio propioaren beharra

Hala ere, dena ez da urre kolorekoa. Soraboxeko kideek kiroldegian entrenatzen dute, eta Ixak adierazi digunez, arazoak dituzte espazio falta dela-eta: "Alde batetik bestera ibili behar izaten dugu eta ez dugu leku finkorik materiala uzteko ere. Klubak ez du dirurik ematen eta erraztasunak behar ditu aurrera egiteko. Egia esateko, nahikoa genuke espazio huts batekin."

Izen-ematea zabalik

Entrenamendu egunak: astelehen, asteazken, ostiraletan 9:15-10:15 astearte eta ostegunetan 19:15-20:15
Prezioa: 30 euro hilean (20 gaztetxoendako)



Julen Gallastegi

Urtebete eta bi hilabete dira izena eman nuela. Behin,

boxeoa probatzeko aukera eman ziguten Gaztetzokoa eta gustatu egin zitzaidan.

Boxeoa hasi aurretik, oso urduria nintzen eta ezin nuen nire indarra kontrolatu. Eskolan-eta, arazoak izaten hasi nintzen. Baina boxeoa hasi naizenetik dena aldatu da, nire indarra kontrolatzen ikasi dut, eta, horri esker, askoz hobeto sentitzen naiz.

Boxeoa jende asko ezagutzeko aukera eman dit, harreman onak egin ditut eta neure burua garatzen laguntzen dit.



Inma Matute

Orain dela bi urte hasi nintzen. Niri ez zait gustatzen

boxeoa ikustea, nahiz eta tarteka joaten naizen jaialdiren batera, Ixa ikustearren. Praktikatzea gustatzen zait, gorputz guztia mugitzen dugulako eta erreflexuak lantzen ditugulako.

Gustura etortzen naiz, oso jende jatorra batzen garelako. Askok uste dutenaren kontra, entrenamenduak ez dira batere biolentoak; ez dugu elkar jotzen. Gizonezko eta emakumezkoak batera entrenatzen dugu, elkarrekin, eta forma fisikoak ez du garrantzirik; edozeinek parte har dezake.



Axier Oñederra

Bi edo hiru hilabete dira apuntatu nintzela. Nire tia

da entrenatzailea eta probatu nahi nuen. Gustatu egin zait. Pentsatzen nuen zailagoa izango zela, baina ez da hain zaila eta ondo pasatzen dut. Gehien gustatzen zaidana erritmo bizkorreko ariketak egitea da. Etorkizunean, gustatuko litzaidake konpetizioetan lehiatzea.

ZORION AGURRAK



Ander Cruz Usobiaga

Maiatzaren 23
Zorionak maitxia!
Ondo ondo pasatu
amatxo eta
familixakuen partez.



Nagore Caballero Mendizabal

Maiatzaren 31n, 10
urte. Zorionak gure
etxeko printzesari
eta muxu handi bat
sendi guztian partez.



Carla Amutxastegi

Ekainak 4an, 4 Urte.
Zorionak eta muxu
handi bat etxekuen
partez.



Inar Arroyo Madera

Maiatzaren 24an, 6
urte. Zorionak,
etxeko den-denon
partetik! Segi beti
bezain jator!



Onintza Ibarzabal Camacho

Maiatzaren 30ean,
12 urte. Zorionak
preioxoa! Muxu
potolo bat etxekoen
partez.

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...

605 706 086

(deitu edo bidali whatsapp-a)

aldizkaria@pilpilean.com

KINTADAK



1977. urtean jaiotakoak

Maiatzaren 20an egin zuten bazkaria, Txurrukan.

ESKELAK

X. URTEURRENA

Alberto Garitano Larrañaga



2007ko maiatzaren 10ean hil zen.


Beti izango zaitugu gogoan.

Etxekoak



Nora eta Begoña

Maiatzaren 24an 7 eta 68 urte. Zorionak!
Etxekoan partez.



Juan eta Kika

Maiatzaren 17an, 80 urte, eta ekainaren 3an,
82. Zorionak aitsitxa eta amama, familia
guztian partez

MOBILIZAZIO NAZIONALA ETA HERRITARRON ITUNAREN AURKEZPENA
MOVILIZACIÓN NACIONAL Y PRESENTACIÓN DEL PACTO CIUDADANO


ERABAKITZEKO

PREST

EKAINAK 10 JUNIO | 17:30 | BILBO
EUSKADI PLAZATIK ELIPTIKA PLAZARA

CURE
ESKU
PACO

Autobusa Soraluzetik
Irteera: 16:30ean Estaziñotik
Izen ematea: ekainaren 2an eta 3an kalean jarriko diren mahaietan



2017
2018

MUSIKA ESKOLA MAIATZAK 29

MATRIKULAZIOA EKAINAK 16

KLARINETEA SAXOFOIA PIANOA GITARRA SOINUA TRIKITIXA PANDEROA
TXISTUA ZEHARKAKO TXIRULA BIOLINA TRONPETA TRONBOIA PERKUSIOA
BAXU ELEKTRIKOA GITARRA ELEKTRIKOA ABESBATZA TALDE INSTRUMENTALA
BANDA PERKUSIO TALDEA MUSIKA HIZKUNTZA MUSIKA TAILERRA



KONTAKTUA:

✉ soraluzemusika@gmail.com

☎ 943 75 15 44



SORALUCE

 SORALUZE
musika eskola



SORALUZeko
UDALA